

Bilbon egingo da CIRPen hurrengo Batzar Nagusia. Fabrikazio aurreratuan nazioarteko fororik garrantzitsuena da CIRP.

- *Abuztuaren 21etik 27ra, CIRPeK, fabrikazio aurreratuan aplikatutako ikerketan aitzindaria den nazioarteko erakundeak, bere 71. Batzar Nagusia egingo du Bilbao Exhibition Centren (BEC), formatu mistoan, hau da, aurrez aurre eta online.*
- *Aurten, IDEKO eta Tekniker zentro teknologikoek, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta Zaragozako Unibertsitateak antolatuko dute ekitaldia.*
- *CIRPen Batzar Nagusia urtero egiten den ekitaldia da, eta ekoizpen ingeniartzaren arloan ospe handia du nazioartean, lehen mailako nazioarteko 500 ikertzaile baino gehiago biltzen ditu-eta.*

Elgoibar, 2022ko uztailaren 18a. Ekoizpen Ingeniaritzaren Nazioarteko Akademiak (CIRP), fabrikazio aurreratuan aplikatutako ikerketan aitzindaria den nazioarteko erakundeak, Espainian egingo du berriro bere Batzar Nagusia. Bigarren aldia da Batzarra Espainian egiten duena, eta, zehazki, Euskadin egingo du, ingurune industrialak eta fabrikazio aurreratuak lurralde honetan duten garrantzia dela eta. Oraingoan, ekitaldia Bilboko (Bizkaia) Bilbao Exhibition Centren (BEC) izango da, eta ekitaldiaren 71. edizioan mundu osoko 50 herrialdetako 500 ikertzaile baino gehiago bilduko dira.

Aurten, CIRPen batzarra abuztuaren 21etik 27ra izango da, eta BRTA aliantzako kide diren IDEKO eta Tekniker zentro teknologikoek, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak (MU) eta Zaragozako Unibertsitateak antolatuko dute ekitaldia. Ekitaldiaren helburua da mundu akademikoko eta industriako bere kideen artean ikerketa eta garapena sustatzea, ingurumenaren aldetik iraunkorra den oparotasun globalean eta gizartearen ongizatean laguntzeko .

Fabrikazioari aplikatutako I+G sustatzeaz gain, batzarrak nazioarteko plataforma gisa ere balio du, ekoizpen ingeniartzan lehen lerroko eragileen artean ikuspuntuak trukatzeko, aliantza berriak bilatzeko eta ikertzaile liderren eta erakunde industrialen arteko lankidetzak bideak ezartzeko.

Jokin Muñoz antolaketa batzordeko presidente eta IDEKOko zuzendari zientifikoak esan duen bezala, CIRPen Batzar Nagusiaren antolaketa aukera bat

da fabrikazio industrialari aplikatutako ikerketan eta berrikuntzan dugun posizionamendua indartzeko, eta ezagutza zientifikoan sakontzen eta *manufacturing*-ean dugun espezializazioan aurrera egiten uzten digu.

Biltzar hau Euskadin egiteak aukera ematen du Euskadik fabrikazio aurreratuaren arloan egindako apustu handia indartzeko eta ikusarazteko, eta industria aurreratu eta BPGan pisu handia duen industria loratzea ahalbidetzen duten agenteen ekosistema handia balioan jartzeko. Hala, horretan lan egiten duten enpresak, unibertsitateak eta ikerketa zentroak balioan jarri eta ikusaraztea da helburua. Horrek guztiak ahalbidetuko du tokiko ekosistema eta fabrikazio aurreratuko ikerketaren munduko erreferente nagusiak hurbiltzea.

Batzarra funtsezko hitzordua bihurtu da mundu osoko teknologiaren abangoardian dauden ekoizpen sistemetako adituentzat. Aurten, gainera, nobedade gisa, aurrez aurre egingo da berriro, COVID-19aren ondorioz bi urtez ospakizun telematikoa egin ondoren. Izan ere, formatu hibrido baten bidez egingo da, eta formatu horrek ahalbidetuko du saioko hitzaldiak aurrez aurre zein *streaming* bidez jarraitzea.

Azken aurrerapenak fabrikazio aurreratuan

Ekitaldia abuztuaren 21ean hasiko da, BECeko dorreko terrazan egingo den ongietorri ekitaldi batekin. Hasiera ekitaldia astelehenean izango da, hilaren 22an, eta bertan izango da Arantxa Tapia Garapen Ekonomiko, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburua. Zazpi egunetan, fabrikazio aurreratuarekin lotutako gaiak jorratuko dira, hala nola, material eta prozesu aurreratuak, fabrikazio sistema malgu, adimendun eta eraginkorrak, energia eraginkortasuna eta fabrika digital eta konektatua.

Zehazki, jardunaldien lehen zatian, hilaren 22tik 24ra, 9 hitzaldi magistral emango dira - industria arloko 2 eta zientzia arloko 7- eta hainbat eremu teknologikori buruzko 126 txosten zientifiko aurkeztuko dira, non industria ekoizpenaren arloan egin diren aurrerapenik berrienak erakutsiko diren, besteak beste, hainbat diseinu ikuspegi eta tresna, makina, ekoizpen prozesu, tresna, metrologia eta ikuskapen ekipo.

Bestalde, hilaren 25etik 27ra, arlo teknologikoetako lan saioak eta bilera orokorrak egingo dira.

Topaketa hau Eusko Jaurlaritzak, I+G+B eragileek eta lurraldeko industria sareak *manufacturing*-ak ekonomian presentzia eduki dezan eta enplegu industrialaren egonkortasuna sendotzeko, azken belaunaldiko zerbitzu teknologikoen garapena bultzatzeko eta prozesu industrialak optimizatzeko egiten dituzten ekintzetako bat da.

CIRPi buruz

Ekoizpen Ingeniaritzaren Nazioarteko Akademia (CIRP) 1952an sortu zen, eta munduan erakunde liderra da ekoizpen ingeniaritzaren esparruan. CIRPeK urtero egiten du bere batzar nagusia bere kideen artean I+Ga bultzatzeko, ikertzaile ospetsuek eta industriaren munduan garrantzitsuak diren pertsonen osatutako nazioarteko sare baten bitartez, horrelako ekitaldietan ezagutzak eta etorkizuneko itxaropenak partekatzen baitituzte.

Akademiak kide mugatuak ditu, ikerketan frogatutako bikaintasunean oinarrituta. Gaur egun, 650 kide inguru ditu, 40 herrialde baino gehiagotan.

Akademiako kide korporatiboen artean enpresa garrantzitsuak daude, hala nola ABB, Makino, Mazak, Pratt and Whitney, Rolls-Royce, Safran, Volvo, Zeiss, DMG-Mori, General Electric, Magna, NPL, PTB eta Airbus, besteak beste.

IDEKOri buruz

IDEKO euskal zentro teknologikoa BRTA aliantzako kidea da eta 35 urte baino gehiagoko ibilbidea eginda dauka industriako fabrikaziora eta ekoizpenera aplikatutako teknologia berriak ikertzen, garatzen eta berritzen, fokua bereziki doitasunezko makina eta prozesuetan eta *manufacturing*-ean aplikatutako adimen artifizialean jarrita.

I+G+B alorrean, enpresa sareari lehiakorra izaten laguntzen dioten soluzio berritzaileak eskaintzen jarduten du, eta 4 ikerketa talde hauen inguruan egituratzen da: Dinamika eta Kontrola, Fabrikazio Prozesuak, IKTak eta Automatizazioa, eta Diseinua eta doitasun Ingeniaritza.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoari buruz

Mondragon Unibertsitateko ingeniaritza fakultateak lau egoitza eta teknologikoki aurreratuak diren instalazioak ditu Arrasaten, Hernanin, Ordizian eta Bilbon, industriaren eta gizartearen erronkei aurrea hartzeko. Fakultateak gazteak eta profesionalak prestatzen ditu, eta horrekin batera ikerketa eta ezagutza transferitzen ditu eta enpresek lehiarako duten posizionamendua hobetzeko bokazioa dauka. Horren adierazgarria da Mondragon Unibertsitateak U-Multirank nazioarteko rankingean ikerketarako kanpoko finantzaketaren lorpenean duen bikain kalifikazioa (Munduko unibertsitateen rankingik handiena eta zehatzena da, eta 1900 zentrok baino gehiagok parte hartzen dute bertan). Ingeniaritza fakultatea prestakuntza dualean aitzindaria eta erreferentea ere bada, eta horren erakusle da ematen diren 16 titulazioetatik 15ek eskaintzen dutela Eusko Jaurlaritzak sustatutako ibilbide eta zigilu DUALerako aukera.

TEKNIKERi buruz

Tekniker BRTA aliantzako zentro teknologiko bat da, eta industria sarera teknologia transferitzen eta garatzen espezializatua dago, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta lehia globaleko agertoki batean bereiztea lortzeko.

Teknikerrek 40 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuko ikerketan, eta espezializazio maila handia lortu du Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan.

Ikerketa arlo horietan lortutako ezagutzak aukera ematen dio Teknikerri bere bezeroei soluzio teknologikoen katalogo zabal eta transbertsal bat eskaintzeko: sistema mekatronikoak, industriako mantentze lanak, robotika eta automatizazioa, ikuskapena eta neurketa, gainazal multifuntzionalak, gailu sentsoareak eta berrikuntza eta adimen lehiakorra.

ZARAGOZAKO UNIBERTSITATEAri buruz

Zaragozako Unibertsitatea gizartearen zerbitzura dagoen goi mailako ikerketa eta hezkuntza erakunde publikoa da, eta ia bost mendeko tradizioa (1542an sortu zen) eta ikerketa aurreratua eta bere irakaskuntzen etengabeko eguneratzea uztartzen ditu. Horren barruan, Ingeniaritza eta Arkitektura Eskola (EINA) unibertsitateetako lanbide eta irakaskuntza berrikuntzako rankingetako lehen postuetan dago, 4500 ikasle, 700 irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako 160 profesionalekin. 2002an, EINako unibertsitate talde askoren ikerketa gaitasuna beste fakultate batzuetako beste batzuekin elkartu zen, eta Zaragozako Unibertsitateko lehen institutua sortu zen: Aragoiko Ingeniaritza Ikerketa Institutua (I3A). I3Ak 33 ikerketa talde eta 500 profesional baino gehiago ditu. Ekonomia zirkularra, 4.0 industria, adimen artifiziala, fotonika, hiri adimendunak, medikuntza pertsonalizatua, etxetresna elektrikoaren teknologia eta errealitate birtual eta areagotua dira